

GURE DATUAK IREKI ETA PARTEKATU

Open Data

Datu libro, urririkakoak eta denek berriz erabiltzekoak publikatzean datza open data, formatu ireki batean ekintza publikoaren gardentasun handiago baterako

Zuen esku, datu libroak eta urririk

Erabiliak izateko datu publikoak publikatzea da open dataren helburua. Molde egituratuan hedatuak dira datu hauek, denek librokori lortu eta berriz erabiltzeko ahal bereztatzen duten metodo eta lizentzia ireki baten arabera. Logizial eta aplikatibo desberdinetan erabiliak izaten ahal dira beraz.

2.0 bertsioko lizentzia irekia da Baionako Hiriak hautatu lizentzia. Open datako datu guztiak **urrik eta librokori** erabil ditzakezue beraz. Datuak kopiatu, erabili eta aberastu ahal dituzue **erabilpen pribatu edo komertzial baterako**.

Iturria (Baionako Hiriak) eta datuen eguneratze data aipatzea da **betebehar bakarra**.

Gero eta datu gehiago

50 datu joko inguru atzeman daitezke [eskaini orrian](#) edo zuzenki data.gouv.fr gunean. Zenbaki hau erregularki emendatzen da, herritarren eta enpresen eskaeren arabera.

Zalantzarik ez ezazuela ukan zuen eskaerak guri aipatzeko. Datu numeriko formatuan eskuragarria baldin bada eta informazio pertsonalik agertzen ez badu, ahalegin guztiak egingen ditugu denek esku uzteko.

Gardentasuna eta berrikuntza, erronka anitza

- › Ekintza publikoaren gardentasunaren indartzea
- › Herritar partehartzearen garapena
- › Trukatzearen sinplifikatzea
- › Berrikuntza teknologikoa eta lurraldetasunaren erakargarritasunaren emendatuz bidezko zerbitzu berriak sortzea



Baionako Herriko
Etxea Maréchal Leclerc
etorbidea, 1 64100 Baiona

+33 5 59 46 60 60

✉ **GUREKIN**
HARREMANETAN
JARRI